


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2006ko otsailean

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko otsailetik 2006ko otsailera) eraikuntzaren kostuak %3,0 igo dira.

EAEEn eraikuntzako kostuen indizeak %0,1eko igoera izan zuen 2006ko otsailean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %3,0raino igo zen, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2006



(*) Hazkundera otsailako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2006ko otsailean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,2ko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten; bai eraikuntzak bai obra zibilako lehengaien kostuek %0,2ko gehikuntza izan zuten aurreko hilabetearen aldean. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, argi ikusten da ibilbide ezberdinak izan dituztela: eraikuntzako lehengaien kostuak %2,4 gehitu ziren, eta obra zibilekoak %2,8.

Otsailean, prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, energia elektrikoan (%3,9), kare, igeltsu eta eskaiolan (%1,6), metal-arotzerian (%1,5) eta gailuak eta material elektrikoetan (%0,7) kontsumitutako lehengaia eman da. Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: petrolioaren eratorriak (%-0,8), asfaltozko produktuak (%-0,8), plastikozko tutueria (%-0,7) eta burdina eta altzairua (%-0,6).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan zituztenak ondokoak izan ziren: asfaltozko produktuak (%29,0), petrolioaren eratorriak (%24,6), energia elektrikoa (%9,5), harri landua (%6,2) eta zementu artifiziala (%4,5). Bestalde, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak (2005eko otsaitetik 2006ko otsailera) murriztu egin dira: metalezko tutueriak (%-5,2), plastikozko tutueria (%-1,2) eta burdina eta altzairua (%-0,2).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2006KO OTSAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	122,4	0,1	3,0	2,6	
ERAIKINAK	122,3	0,1	2,9	2,6	
OBRA ZIBILA	122,8	0,1	3,3	2,5	
LEHENGAIEN KOSTUA	118,7	0,2	2,5	2,0	
ERAIKINAK	118,8	0,2	2,4	2,0	
OBRA ZIBILA	118,3	0,2	2,8	1,7	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	131,1	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp